

Ezpainak



Meheak.- Kolore argienak erabiltzea komeni zaizu, eta ahal izanez gero ezpainei edertasuna emango dien *glossak* erabili beti. Bistarako, ezpainen bolumena gehitu nahi baduzu, binilo-distirekin mirariak egitea lortuko duzu.

Desberdinak.- Ezpain-ertzetarako lapitza erabili beharko duzu nahitaez -ezpainetako margoaren tonu berekoa- eta ertz guztiak berdintzen saiatu. Tonuari dagokionez, ondoena ematen dizuna erabili.

Haragitsuak.- Testura mateagoak erabili eta kolore diskretuagoak.


Trukua

Kolore biziagoa lortzeko, ezpainetako margoarekin geruza bat baino gehiago eman. Geruza bakoitzarekin, koloreak pixkanaka bat egingo du ezpainekin, eta lortzen den emaitza distiratsuagoa eta glamur gehiago duena izango da.

Begiak

Makillajearen proposamenetan denentzat baliagarria den zerbait baldin badago, hori inolako zalantzarik gabe *eyeliner*-en itzulera izango da, hori begi ingurua luzatu eta zehaztasun osoz mugatzeko erabiltzen den tresna liluragarria da.

Eyeliner erabiltzera ausartzen ez bazara, begietako lapitzarekin egin ditzakezu praktikak. Koloreari dagokionez, beltza edo marroia aukeratu begi ilunak baldin badituzu; aran, brontze edo marroi kolorea begi berdeak edo arreak baldin badituzu, eta beltza, grisa edo itsas urdina, begi urdinak baldin badituzu.



Begi-itzalak

Kolore aukeraketak eta makillajea emateko erak aurpegiaren itxura alda dezakete eta akatsik nabarmenenak ezkutatu.

Begi eroriak.- Tonu ilun samarra eman behar duzu mugitzen den betazalean eta askoz ere argiagoa den bat arku ziliarrean –bekain hezuraren azpiko aldean–, eta lapitza edo *eyeliner* erabiliz egin ezazu zertxobait goraka egingo duen arrastoa.

Begi irtenak.- Eman ezazu tonu argiagoa betazalen azpiko aldean eta mugitzen den betazal horretan itzala eman betiletaraino.

Begi hondoratuak.- Goiko betazal guztia margotu kolore zuri edo marfilarekin, eta gero beste kolore argi batekin eta mugitzen den betazalean itzala eman begiaren erdi aldetik lokietarantz.

Trukua

Begietako itzala, hautsean edo prentsatua, eman aurretik betazalak lehor-lehorrak izan behar ditugu –komenigarria izaten da horietatik paperezko zapi bat pasatzea hori ziurtatzeko eta koiperik edo hezetasunik badugu kentzeko–. Bestela, itzalak oso modu desberdinean xurga dezake hezetasuna, eta kentzeko oso zailak izango liratekeen orbanak utziko lituzke.



Bekainak


Begitarte marrazten dute eta aurpegiari itxura ematen diote. Bekainen diseinua lanbide izatera heldu da eta lan horri gero eta arreta gehiago eskaintzen zaio.

Egin beharreko urratsak:

1.- Garbitu: Beti pintzak erabiliz bekain artean eta inguruan egun batetik bestera hazten direla iruditzen zaigun ile gogaikarri horiek kenduko ditugu.

2.- Zehaztu: Eskuila edo orrazi berezi bat erabiliz, betileak goraka orraztu eta irteten diren puntak guraizeekin moztu.

3.- Itxura eman: Pintza batzuk erabiliz horiei itxura eman edo makillatu egingo ditugu soilguneak baldin baditugu, harik eta guk nahi dugun itxura eman arte.



Oinarritzko makillajea

Azal bakoitzari bere *Fond de teint*-a:

Lehorra.- Olioarekin egindako oinarri jariakorrak eta koipetsuak erabili.

Zahartua.- Badira azala oso ongi leuntzen duten oinarri bereziak eta baita zahartzaroaren eragina nolabait kentzen dutenak ere.

Delikatua.- Ahal baduzu behintzat hipoalergenikoak erabili, eta gorritasunak izateko joera baduzu, pigmentu berdeak dituzten egokitzaileak erabili.

Koipetsua.- Olorik ez dutenak edo trinkoak. Azalik lehorrenak izango dira aldaketarik izango ez dutenak bakarrik.



Egin beharreko urratsak:

- 1.- Azala premiaren arabera garbitu eta hidratatu.
- 2.- Presta ezazu zuzentzaile egokia –makillajearen oinarria baino tonu argiagoa–, eman ezazu "ezkutatu" nahi dituzun inguruetan, begi-zulo, pikor, gorritasun... eta hatzekin zabaldu.
- 3.- Zabaldu ezazu oinarria. Beti zure azalaren tonua baino zertxobait argiagoa, eta pixka bat barrutik kanpo aldera zabaldu hatzak edo belaki bat erabiliz, lepoa eta belarri-gingila ahaztu gabe.
- 4.- Makillajea finkatzeko, zabal itzazu hauts arinak brotxa zabal bat erabiliz.



Trukua

Urte gehiago izatearen itxurarik izan nahi ez baduzu, ez eman inoiz makillajea zimurretan eta adierazpen-lerroetan, hatzetan geratzen zaizuna erabili eta difuminatu.

Kolorete pixka bat erabiliz zuk nahi duzun itxura eman diezaiokezu aurpegiari, beti ere hori aplikatzeko arau batzuk jarraitzen badituzu.

Makilatzaile gehienek amaierarako uzten dute blush-a aplikatzea. Bi arrazoi argi eta garbi dituzte horretarako. Batetik, koloretea bere "lanaren" azken ukitua izaten da eta aurpegiari beste itxura bat ematen dio; bestetik, kontuan izan behar ditugu aurpegian, ezpainetan eta begietan ditugun koloreak, behar dugun koloretearen kolorea inolako zalantzarik gabe asmatzeko. Eta, joerak baldin badira ere kontuan izan beharrekoak, blush-ak musuak lotsaz gorritzearen antzekoa izan behar du.

Kolore aukera

Arrosa, melokotoi, terrakota edo aran kolorekoak, edo tonu biziagoko koloreak. Aukeratzen duzun tonalitatea aukeratzen duzula, hori aurpegiko kolorearekin ez haustea izango da garrantzizkoa. Kolore hori aurpegiak berak duen kolorea dela sinestaraztea lortu behar dugu. Azala koipetsua baldin baduzu hautsak erabili, eta zure azala lehorragoa baldin bada, krema edo gela erabili koloreteetarako.

MAKILAJEA

